

# Lêdo Ivoren poesia

AURKEZPENA: JON KORTAZAR

POEMA SORTAREN ITZULTZAILEA: JUAN KRUZ IGERABIDE

Euskaraz ematen dugun testu hau Lêdo Ivo poeta brasildarrari ezagutzen zaion azken poema liburutik ekarria da. 2012an hil zen Ivo, bat-batean, Sevillan, Gabonetako bidaia egiten ari zela semearekin, errainarekin eta ilobekin. Harrezkero, haren testuak Gustavo semeak ematen ditu argitara. *Relâmpago* [Tximista] 2015ean plazaratu zen, espainieraz eta portugesez, eta lan horretako zenbait poema dakartzagu orri hauetara<sup>1</sup>.

Lêdo Ivo Brasilgo Modernismoaren poeta nagusia dugu, 45eko belaunaldiko izen deigarria. 1924an jaio zen, Maceió hirian. Dirudienez, Sardinha apezpiku famatua jan zuen tribuaren ondorengoa zen, amamaren aldetik. Sardinha apezpikuaren gertaera hori oso ezaguna da, eta Manuel Rivasek berak aipatu izan du, *O ultimo dia de Terranova* nobelan. Gaixoak ironiaz esaten omen zuen patua idatzia zuela abizen horrekin.

Gaztetan hasi zen poesia idazten, nahiz eta ez zen oso ezaguna egin harik eta Rio de Janeirora zuzenbidea ikastera eta kaze-taritzan lan egitera joan zen arte, 1943an. 1946an, lehen poema liburua argitaratu ondoren, sari handiak irabazi zituen, eta poesiaren eremuan toki berezia hartzen hasi zen, *Ode e elegia* [Oda eta elegia] liburuari esker. 1953an, Parisen bizi izan zen, eta Europa ezagutzeko ahaleginak egin zituen, batez ere Europako poetak zuzenean irakurriz eta haien lanak itzuliz. 1963an, berriz, Estatu Batuetara joan zen, hango gobernua-ren laguntzaz.

XX. mendearen azken hamarkadan eta XXI.aren lehenean, Lêdo Ivoren lanaren ezagutza zabaldu egin da, eta nederlanderaz, grezieraz, frantsesez, ingelesez eta espainieraz argitaratu da.

---

1. Oharrok Martín López-Vega poeta eta itzultzaileak idatzitako «Lêdo Ivo en contexto» lanaren laburpena dira (*Relâmpago* liburuaren hitzaurretik). Eskerrak hari artikulua laburtzeko emandako baimenagatik, eta Lêdo Ivoren semeari, berriz, poemak euskaraz argitaratzeko baimenagatik.

Surrealismoak ez du toki handirik Brasilgo poesiaren historian; modernismoak, aldiz, hiru belaunaldi ezagutu zituen. 22koa, 30ekoa eta 45ekoa. Azken horretan kokatu da Lêdo Ivoren sorkuntza poetikoa. Izenak —45eko belaunaldia— adierazten duenez, ez dago batasun handirik hartan kokatu izan diren poeten artean. Talde bat agertzeko orduan data bat jartzen denean aipamen estetikoa egin ordez, taldekideen artean kointzidentzia kronologikoa egon arren desberdintasun estetikoa nagusitzen delako izan ohi da. Hauek dira taldean agertu diren izen batzuk: Carvalho da Silva, João Cabral de Melo Neto (agian, gure artean ezagunena), Geraldo Vidigal, eta gaur gure hizkuntzara dakargun Lêdo Ivo. Taldekideen zenbait liburu garrantzitsu agertu zirelako aukeratu zuten 1945eko data.

Dena dela, kronologiaz gainera, taldeak baditu zenbait ezaugarri komun: zehaztasun formala gero eta garbiagoa da; emozioak eta sentipenak neurritz emanak daude; hizkuntzaren seriotasuna aipatu izan da. Eta, denaren gaintik, parnasianismoan jausteko arriskua dago, formaren indarra dela eta. Gainera, poeta horiek badute arazo nagusi bat: aurrekari indartsuengandik urruntzea. Hau da, poeta nagusiak izatea baina aurrekari jarraitzaile izan gabe, eta izen handiak dituzte aurretik: Drummond de Andrade eta Vinicius de Moraes, adibidez.

Taldearen barnean, laster agertu zen Lêdo Ivo buru gisa, nahiz eta berak ez duen funtzio hori onartu nahi izan. Haren lan poetikoak era berean ukatzen du 22koen lana eta 45ekoena, eta kontraesanez onartzen ditu modernismoak eskainitako baliabide poetiko nagusiak; hain zuzen ere, poe-

sia pertsonala egiteko asmoz. Berak esan ohi zuen bezala: «Araua transgresiorako gonbita da». Eta behin eta berriro bere poesia eraberrituz saiatu zen bide pertsonal bat sortzen. Eta, ironiaz esan izan den bezala, haren garaikideek izen luzea eta bertso laburra erabili zituzten, baina berak, aldiz, izen laburra eta bertso luzea, poetika gisa lelo nagusi hau jarrita: literatura desberdintasuna da.

Desberdintasuna ageri da Lêdo Ivok Europako poeten gainean egindako irakurketan. Poetak bazuen zer kritikatu modernismoari; hain zuzen ere, oso gaizki irakurriak zituela Europako poetak: «Inork ez zekien zer idazten zen Europan, eta handik irakurtzen zutena gaizki irakurtzen zuten». Horregatik, beraren irakurketen sarea zabal da, eta haren barnean kokatu zituen Eliot, Yeats, Rilke, Valéry, Apollinaire eta Bréton. Begi zuhurreko poeta izaki, aldaketa estetikoak oso kontuan hartu zituen, eta arduratsu hartzen zituen Europan gertatzen zirenak.

Aberastasuna, aldakortasuna eta egokitasuna dira Eliotek poeta bati eskatzen dizkion hiru bertuteak. Lêdo Ivok hirurak betetzen ditu, bere neurrian. Poeta aberatsa da, tonu askokoa, neurri poetikoak era desberdinez erabiltzen dituena; aldakorra da bere joeran, eta egokitasuna bilatzen du uneoro, gai poetikoa eta forma batera lotuz.

Lêdo Ivoren poesian badira, dena dela, gai nagusi batzuk etengabe dantzan han eta hemen: eternitatearen eta hilkortasunaren arteko kinka; sublimearen eta absolutuaren bilaketa; gaiaren gainteko ikuskizuna, dena hartu nahi duen perspektiba, denbora geldiarazteko ahalegina; paradoxa kontzeptu nagusi gisa eta mundua ikusteko gai gisa.

Poetaren nahia dena kontatzea da, dena adieraztea, denari buruzko ikuspegi zabal bat ematea. Berak esan zuen bezala, poeta guztiek dute zehaztasuna, berak ere bai, baina Lêdo Ivoren zehaztasuna zabala da; ez da pospolo kaxa batean kabitzen; haren zehaztasunak ozeanoaren neurriak bilatzen ditu. Horregatik ez du nahi poeta perfektua izan; mugimenduan ageri den poetaren itzala zabaldu du Lêdo Ivok. Mugimenduan, esperimentazioan eta ikerketan, inoiz geldirik geratu gabe, urrunago joanez bere espresio poetikoan. Aldi berean maite ditu poesia jaso eta herrikoia, eta poesia «kolektiboaren eta herrikoiaaren biltegia da» berarentzat.

Poesia ulertzeko moduan, badago beraren poetikan ohar bat oso berezia dena bertso libreaz eta beraren poesiaren zentzuaren neurria ematen duena: «Bertso librerik ez da, edozein poematako bertsoa loturik baitago egitura batean; bertso bat beste bertso batzuekin lotzen den pieza da. Ez da poeta librerik. Edo, hobeto, poetaren askatasuna xake jokalaria da. Xake konbinaketarik ausartenez ere ez dituzte murrizten kalkulu eta zortea».

Hala, egitura nagusi batean ikusi zuen bere poesia Lêdo Ivok, eta *Relámpagos* oso ondo azaltzen ditu poesiarako nahi zuen aberastasuna, zabaltasuna eta indarra.

## A LAGUNA

Não renunciés jamais a ser a água,  
oberço da água de onde as águas fluem  
em direção ao mar e ao rio aberto  
no deserto da vida. Não desmintas  
jamais a tua origem soberana  
derivada dos mangues fervilhantes  
e inimiga do sacro simulacro  
onde a morte é a lacraia que se esconde.  
Não te apartes jamais da alva corrente  
que te embalou na aurora, a aura fulgente  
do navio ancorado na laguna,  
bandeira desfaldrada na nenhuma  
pátria a não ser a pátria de água e fonte.  
E no dia mais vasto e mais maduro  
da vida transcorrida num instante,  
como se fora apenas o rascunho  
do risco luminoso de um relâmpago,  
entre a clara alegria e a escura mágoa  
sê sempre puro como o vento e a água.

## AINTZIRA

Ez inoiz uko egin ur izateari,  
uraren sehaska, nondik baitira abiatzen urak  
itsasorantz edo ibai zabalerantz  
bizitzaren basamortuan. Ez alde batera utzi inoiz  
zure errege-jatorria,  
irakiten dauden manglareetatik sortua,  
itxura-egite sakratuaren kontrakoa,  
non heriotza ezkutuko eskolopendra baita.  
Ez aldendu inoiz goizalban kulunkatu zintuen  
egunsenti ibaitsutik, aintziran ainguraturiko  
itsasontziaren distira bizitik,  
aberririk gabe edo ur eta iturrien aberrian  
mugitzen den banderatik.  
Eta une batean igarotzen den  
bizitzako egunik zabal eta umotuenean  
tximista baten argi-tarrataren  
zirriborro doi baten antzekoa bailitz,  
izan zaitetz beti, alaitasun argiaren eta pena  
ilunaren artean, haizea eta ura bezain garbi.

### O TRANSEUNTE DESNORTEADO

Foi-me negado o Paraíso  
sem que eu tivesse recebido  
do céu azul qualquer aviso.

Mas nenhuma razão persiste  
para eu ficar desapontado.  
O tal do Inferno não existe.

No viaduto uma sirene  
sulca o silêncio e silencia.  
Hoje em dia nada é perene.

E muito embora toque um sino  
antecipando o meio-dia  
não sei qual será meu destino.

Irei de um lado para o outro  
como um navio que desconhece  
o nome exato do seu porto?

Irei de um lado para o outro  
como um defunto que ignora  
o lugar onde cair morto?

Ou não irei a parte alguma,  
vaga que no meio do mar  
se desfaz em pálida espuma.

### IBILTARIA BIDEA GALDURIK

Paradisua ukatu zidaten  
aldez aurretik zeru urdinaren  
abisurik jaso gabe.

Inolako ziorik ez dago ordea  
ni zapuzturik sentitzeko.  
Delako infernu hori ez baita inon.

Errepidean sirena-hotsa  
isiltasunean zehar, dena isilaraziz.  
Gaur egun ezer ez da iraunkor.

Eta kanpai bat jota ere  
eguerdiaren etorrera adieraziz,  
ez dakit nire patuaren berri.

Hara eta hona ibiliko ote naiz  
kaiaren izen doirik ez dakien  
itsasontzi baten pare?

Hara eta hona ibiliko ote naiz  
hildako bat bezala  
zein lekutan hil den jakin gabe?

Edo ez naiz joango inora,  
itsasoaren erdian bits zurbilez  
desegiten den olatua bezala.

## O LUGAR SEM CHAVE

Quem guarda durante a noite  
a chave do necrotério?  
Necrotério não tem chave.  
Ele sempre fica aberto  
seja de noite ou de dia  
numa incessante porfia  
no vai-e-vem interminável  
do entra e sai dos cadáveres.  
Na fetidez do serão  
há sempre alguém de plantão  
a mão cansada de abrir  
o gelado gavetão.  
E cesse toda esperança:  
a mortalha não tem bolso  
para guardar a poupança.  
Saibam todos os viventes:  
semente do inexistente,  
a vida sempre é de morte.  
O derradeiro mistério  
acaba no cemitério.  
Para o defunto ilusório  
que estima o logro do fogo  
termina no crematório  
na trituração dos ossos  
na fumaça que se esgarça  
e como un vômito alcança  
o céu da desesperança  
no céu sem céu e sem pássaros.

## GILTZARIK GABEKO LEKU BAT

Nork jasotzen du gaeuz  
gorputegiko giltza?  
Ez baitago giltzarik.  
Beti dago zabalik  
hala egunez nola gaeuz,  
hilotzen etengabeko  
joan-etorri tematian.  
Gaueko txandaren kiritsean  
beti dago norbait guardian,  
kaxoi izoztua behin eta berriz  
zabaltzeaz nekaturik.  
Amaitu itxaropen oro:  
hil-atorrak poltsikorik ez du  
aurrezkiak gordetzeko.  
Bizidun orok jakin behar du  
ezerezaren hazi dela;  
biziak herio zor.  
Azken misterioak  
hilerria du jomuga.  
Suaren esperantzan hil dena  
sutan errauts bihurtzen da,  
hezurrak txirtxilaturik,  
ketan luzaturik  
zeruko desitxaropenaren bila,  
zerurik eta txoririk gabeko zeruan gora.

### A PRESSA DOS HOMENS

Quanta gente neste mundo,  
nos carros e elevadores,  
na estação de metrô,  
nos bancos e aeroportos,  
nas praias e coquetéis,  
nos motéis e lanchonetes!  
Ninguém para, todos correm.  
A vida é uma correria.  
As pernas vão sempre andando  
e os minutos vão passando  
na procissão correntia.  
Do bancário ao salafário,  
do mendigo ao milionário,  
todos têm hora marcada.  
Nenhum instante a perder.  
E sob o sol paciente  
da cidade tumultuosa  
passa um carro funerário,  
negro transporte da morte.  
Passa vagarosamente.

### GIZAKIEN PRESA

Zenbat jende mundu honetan  
autoetan eta igogailuetan,  
metroaren geltokian,  
aulkietan eta aireportuetan,  
hondartzetan eta kokteletan,  
hoteletan eta kafetegietan!  
Inor ez da gelditzen, denak presaka doaz.  
Bizitza arrapalada hutsa da.  
Hankak beti ibilian  
eta minutuak aurrera  
segizio presatian.  
Bankujabea nahiz lotsagaldua izan,  
eskalea nahiz aberatsa izan,  
denek dute hitzorduren bat.  
Ezin galdu segundo bat ere.  
Eta hiri burrunbatsu honetako  
eguzki egonarritsuaren pean  
hileta-auto bat igaroz doa,  
herioren garraiolari beltz.  
Hor doa igaroan, alderrai.

A SERPENTE

Além da luz se ergue a sombra,  
a voz opaca do silêncio  
como uma palma que se curva  
à razão do vento.

Na folhagem dorme a serpente,  
a multicolor ondulação  
de uma espreita que desconhece  
a morte e o amor.

Quem não espera o nascer da noite  
jamais conhecerá a sombra.  
Dia, serpente que rastreja  
na direção do vento.

Flor! E a manhã desaba.  
Sepultura do sonho e da miragem,  
o céu silencioso serpenteia.  
E a vida é vento e folhagem.

SUGEA

Eguzkiaz haratago, itzala altxatzen da,  
isiltasunaren argi itsua,  
haizearen mende okertzen den  
palmondo bat bezala.

Landaredi sarrian lo dago sugea,  
kolore ugariko uhin zelataria,  
heriotza eta maitasuna  
ezagutzen ez dituen.

Gauaren jaiotza ezagutzen ez duenak  
ez du inoiz ezagutuko itzala.  
Eguna, haizearen bidean  
xerka dabilen sugea.

Lorea! Eta eguna askatzen da.  
Ametsa eta lilura lurperatuz,  
zeru isila suga antzo doa.  
Eta bizitza haizea da, eta hostotza.



INVECTIVA

Todos vós passareis  
como sombras que passam.  
Pensais ser tudo  
e não sois nada.  
Sois menos que um piolho  
e menos que uma traça.  
Vosso tesouro é o ouro  
que vira fumaça.  
Amim, e só a mim, cabe ficar  
e ficarei sozinho  
senhor do caminho  
entre as sombras e as sobras  
de Vós, grandes de agora,  
desde sempre fadados a sumir  
levados pelo vento vagabundo.  
Só minhas mãos sustentam  
o esplendor do mundo.

MINTZALDI ZORROTZA

Zuek denok igaroko zarete,  
itzalak igarotzen diren moduan.  
Dena zaretela uste duzue,  
eta ez zarete ezer.  
Zorri bat baino gutxiago zarete,  
pipia baino gutxiago are.  
Zuen altxorra urrea da,  
ke bihurtzen den urrea.  
Neuri, neuri baino ez, dagokit geratzea,  
eta neu bakarrik geratuko naiz  
bideko jaun eta jabe  
zuen, gaurko handien,  
itzal eta hondakinen artean,  
betidanik baitzaudete desagertzera bideratuak  
haize erromesak eramanik.  
Nire eskuek bakarrik eusten diote  
munduaren distirari.

A CHUVA

Quem vive sonha viver.  
Quem morre não sonha nada.  
E a chuva bate nas telhas  
—a chuva da madrugada.

Sonho viver o que vivo.  
Sonho sonhar o que sonho.  
Parto sem porto ou farol  
num navio fugitivo.

Disfarçado no que sou  
viajo sem passaporte  
na viagem derradeira.

E a chuva negra desaba  
no tombadilho da morte.  
Irei para onde não vou.

EURIA

Bizi denak bizi dela amesten du.  
Hiltzen denak ez du ezer amesten.  
Eta euria teilei joka ari da,  
egunsentiko euria.

Bizitzen ari naizena bizitzen ari naizela amesten dut.  
Amesten ari naizena amesten ari naizela amesten dut.  
Kairik eta itsasargirik gabe abiatu naiz  
ihesi doan itsasontzi batean.

Naizenaz mozorroturik,  
pasaportetik gabe bidaiatzen dut  
azken bidaia honetan.

Eta euri beltza ari du  
aginte-zubiaren gainera.  
Ez noan aldera joango naiz.

A PARTILHA

Último adeus à terra bem-amada!  
Adeus ao sol luzente  
e à chuva bela como o pão pousado  
na mesa matinal.  
O dia passa como passa um barco  
no mar azul do mar.

Mesmo que dure apenas um instante  
será eterna a vida  
que entre a aurora e o vôo de uma gaivota  
foi sempre dividida:  
pão repartido e chuva copiosa  
na terra escurecida.

BANAKETA

Azken agurra lur maiteari!  
Adio eguzki jaioberriari  
eta ogia goizeko mahaira bezala  
pausatzen den euri ederrari.  
Eguna itsasontzi baten antzera igarotzen da  
itsasoaren itsaso urdinean.

Une bat baino ez badirau ere,  
bizitza betiko izango da,  
egunsentiaren eta kaio baten hegaldiaren artean  
zatiturik egon izan baita beti,  
ogi banatua eta euri sarria  
lur ilunean.

### SONETO DA PLUMA

Um súbito esplendor veste a baía  
já convertida em derradeiro abrigo  
e entre as águas douradas o inimigo  
busca a noite usurpada pelo dia.

Tudo é sombra e silêncio, na erradia  
paisagem destilada pelo sonho  
e qualquer perda se transfaz em ganho  
quando o mistério é o mais seguro guia.

Tudo é sombra e silêncio e pensamento  
extinto pelo vento, e branca espuma  
que se esvai na maré arrefecida.

E a dor é dor inútil, vão lamento  
de ave desfeita em desprendida pluma  
que leva a morte após levar a vida.

### A BATALHA

Os generais não morrem nas batalhas.  
Apenas os soldados, e aos montões.  
Na batalha do mundo, quero comandar.  
Quero ser general, ter um binóculo  
para assistir à morte dos soldados  
que, enfrentando os estrondos e explosões,  
rastream como goiamuns na lama  
e dão as suas vidas pela Pátria  
e pela minha glória imorredoura  
de heroi que sempre morre numa cama.

### LUMAREN SONETOA

Badia bat-batean distiratsu  
azkeneko kai babes bihurturik,  
etsaia urre-uretan gorderik,  
eguna ostu duen gaua nontsu.

Dena da ilun eta isiltasun,  
ametsari darion lurraldea,  
non galtzea baita irabaztea,  
non misterioa den bidelagun.

Dena da ilun, gogoeta isil,  
haize eta bits zuriaren mende,  
itsasgora baretuan galduta.

Eta mina, lantutan alferrik bil,  
txit lumaturiko hegazti-jende,  
herio-garraio bizi-gomuta.

### BORROKALDIA

Jeneralak ez dira hiltzen borrokaldietan.  
Soldaduak baino ez, soldoka.  
Munduko borrokaldian agintari jarri nahi dut,  
jenerala izan nahi dut, largabista eta guzti,  
soldaduak nola hiltzen diren ikusteko  
eztanda eta burrunba artean  
lokatzetan arrastaka karramarroen antzera  
Aberriaren alde bizia emanez  
eta niri, berriz, betiereko aintza,  
beti ohean hiltzen diren heroi horietakoa bainaiz.

### O CAIR DAS FOLHAS

Ouço um rumor de folhas na floresta.  
Que folhas? Que rumor? O dia me enlaça  
como uma serpente. O dia é o sol  
que enfrenta a morte breve e o sonho interminável.  
Mas que morte, que sonho? e uma liana  
abraça a árvore, na hora do relâmpago.  
E nada começa ou termina. E nada vive em mim  
exceto um rumor de folhas  
exceto o cair das folhas na floresta.

### HOSTOEN ERORTZEA

Hostoen murmurioa dantzut baso sarrian.  
Zer hosto? Zer murmurio? Suge baten antzera  
biltzen nau egunak. Lo amaigabeari aurre egiten dion  
heriotza laburra duzu eguna.  
Baina, zer heriotza, zer lo? Huntzak biltzen du  
zuhaitza tximistaren unean.  
Eta ezer ez da ez hasten ez amaitzen. Eta ezer ez da  
bizi nigan, hostoen murmurioa baino,  
baso sarrian erortzen diren hostoen murmurioa.

NEM TODOS

Nem todos deixam a marca de sua passagem na terra  
ou são surpreendidos pelo pavão que atravessa o bosque  
e abre a sua cauda no silêncio do mundo.  
Nem todos murmuram palavras de amor ao cair da noite  
e se refugiam em tendas brancas armadas junto ao oceano  
ou esperam que os navios confiados à sabedoria dos  
estaleiros comencem a apitar.  
Nem todos viram a morte no rosto bem-amado  
ou sofreram fome, desolação e frio.  
Nem todos encontraram a chave perdida durante o  
temporal  
quando o assassino cauteloso sumiu no nevoeiro  
ou copularam ao entardecer em grandes motéis  
embandeirados situados à beira do mar.  
Há ainda os que sentem uma certa aflição quando os  
trens alcançam os aquedutos  
e os que escalam as montanhas durante o inverno e  
escorregam no gelo.  
E nem todos conhecem o caminho da floresta e ouviram  
o súbito  
e se detiveram diante do musgo que esverdeia as  
grandes árvores  
e há mesmo os que são indiferentes aos vôos  
dos pássaros  
e às sirenes das ambulâncias nas rodovias congestionadas.  
Nem todos contemplaram a moça suicida na mesa do  
necrotério  
e notaram que as suas mãos estavam postas como se ela  
estivesse rezando.  
Nem todos viram o pavão. Nem todos escutaram os  
apitos do navio.  
E esta é a suprema diferença que divide os homens  
quando o dia nasce.

EZ DENEK

Ez denek uzten dute lurretik igarotako arrastorik,  
edo indioilarrak ezustean ditu harrapatzen  
basoan zehar igarotzean isatsa zabalduz mundu isilean.  
Ez denek xuxurlatzen dute maite-hitzik ilunabarrean  
eta denda zurietan dira babesten ozeano ertzean  
edo zain dira geratzen noiz hasiko txistuka itsasontziak  
ontzigintzako jakinduriaren babesean.

Ez denek dute ikusi heriotza maitearen aurpegian  
edo dute jasan goserik, babes faltarik edo hotzik.  
Ez denek dute aurkitu ekaitzean galduriko giltza  
hiltzaile zuhurra lainoan galdu denean  
edo dute larrua jo ilunabarrean motel handietan  
itsasertzean banderaz inguraturik.

Badira, aitzitik, tristura sentitzen dutenak  
trenak goibideetara iristen direnean,  
eta neguan mendiak eskalatzen dituztenak  
izotzetan irrista eginez.

Ez denek dute ezagutzen basoko bidea  
eta bat-bateko zer hori dute entzun  
eta zuhaitzetan itsasten den goroldioari  
begira dira geratu;  
aitzitik, batzuei bost axola txorien hegaldia  
nahiz gainezka dauden autobideetako  
anbulantzien sirenak.

Ez denek dute ikusi bere buruaz beste egin duen neskatxa  
gorputegiko etzalekuan luze  
eta dute sumatu eskuak otoitzean bezala jarririk dauzkala.  
Ez denek dute indioilarra ikusi. Ez denek dute  
itsasontziaren ulua entzun.

Eta hori da desberdintasun nagusia,  
egunsentian gizakiak bereizten dituen.

### O IGNORANTE

Ignoro a oríxen do mundo eo fulgor das estrelas.  
Ignoro o movemento que estremece e contraí a concha  
desejada.  
Nada sei sobre a pedra e o silencio.  
Ignoro o amor e a chuva monótona.  
A tudo ignoro e no entanto vivo  
e respiro a maresia  
de minha infancia sepultada, de minha infancia  
que me acompaña como una sombra persistente  
na noite iluminada.

### EZJAKINA

Ez dakit ezer munduaren sorreraz eta izarren distiraz.  
Ez dakit zer mugimenduk inarosten eta uzkuratzen duen oskola  
desiratua.  
Ez dakit ezer harriaz eta isiltasunaz.  
Ez dakit ezer maitasunaz eta euri beti-berdinaz.  
Ez dakit ezer, eta hala ere nire hartzaro lurperatuaren  
itsasgora arnasten dut;  
neure hartzaroa neurekin dator itzal taigabe gisa  
gau argizatuan.



### Resumen

Este artículo pretende ser una introducción a la obra *Relâmpago* de Lêdo Ivo para el lector vasco. Para ello, se ha traducido al euskera, por primera vez, una selección de poemas de esta obra. De manera muy breve, se describen algunas de las características de su poesía, y se sitúa su obra en la historia de la poesía brasileña.

### Résumé

L'objet de cet article est de présenter au lecteur basque le poète brésilien Lêdo Ivo, profitant de la récente traduction en euskara d'une sélection de poèmes extraite de son ouvrage *Relâmpago*. En guise d'introduction, nous signalons brièvement quelques détails de son parcours poétique tout en situant son œuvre dans le contexte historique de la poésie brésilienne.

### Abstract

The purpose of this article is to introduce the Basque reader to Brazilian poet Lêdo Ivo, through a selection of poems, translated into Basque for the first time, from his work *Relâmpago* [*Lightning*]. Briefly, some of the characteristics of Ivo's poetry are described, and his work is set in its proper context in the history of Brazilian poetry.